

# The Gardiner Expressway birbasatzen

Soinua leku baten nortasuna miatzeko tresna

**Laburpena:** Rewilding the Gardiner Expressway (Gardiner Expressway errepidea birbasatzea) multimediazko artelan bat da. Artelan horrek, irudi eta soinuaren bidez, hiriaren eremu naturala eta kulturala aztertzen ditu. Azterketa horretan erabiltzen den metodoa azaltzen dut hemen. Paisaia miatzeko erabiliko dudana tresna metodologikoa soinu-ibilaldia da; soinu-ibilaldiaren bitartez paisaiaren pertzepzioa aldatzen eta osatzen dugu, soinua praktika artistiko bihurtuz.

**Hitz-gakoak:** paisaia, pertzepzioa, soinu-ibilaldia.

**Abstract:** Rewilding the Gardiner Expressway is a multimedia artwork that explores the natural and cultural boundary of the city through image and sound. This paper describes the method used for producing the piece; from the soundwalk as a method for exploring the landscape, to the use of sound in artistic practice.

**Key words:** landscape, perception, soundwalk



Usue Ruiz Arana

Paisaia-arkitektoa, OOBELtd; Newcastle Unibertsitatean doktoregaia

Bidaltze data: 2016-09-01

Onartze data: 2017-01-31

## Soinua

*Egun eder baten ideia ikusizkoa izaten da gebienetan. Egun ederra zeru urdin argi batez gertatzen zaigu... Niretzat haizeak eguzkiaren tokia hartu du eta egun eder bat haize gozoa dabilenean suertatzen zait. Haizeak soinu guztiak biziarazten ditu nire inguruan. Hostoek krisk egiten dute, paperezko zapitxoak zoruan zehar zabaltzen dira, eraikin bandietako horma eta kantoiak haizearen pare tente daude, haizea nire ilean, nire aurpegian, nire arropan sentitzen dut. Bero samoa dagoen egun bat ederra litzateke agian, baina trumoiak ederrago lezake egun bera, lekune eta urruntasunaren zentzua guregana erakarritz. Ostotsak teilatu bat ipintzen du nire buruaren gainean, oso sabai altua soinu arrastagarriz bete. Leku zabal-zabalean nago, lehentxeago deus ere ez zen tokian. Ikusten duen pertsona batek beti du teilatu bat bere gainean, zeru urdin zein hodei itxuran, edo izarrez jantzita gauez. Gauza bera gertatzen zaio pertsona itsuari zubaitzen buruak haizeak zebarkatzen dituenean; soinuak zubaitzak sortzen ditu niretzat, zubaitzez inguratuta nago lehen ezer ez zen lekuan (Hull, 2013: 27).*


Hull-ek, ikusmena apurka-apurka galduz joan zen unibertsitateko irakasleak, ingurumenaren pertzepzioan soinuaren poderioz hitz egiten digu. Soinutan murgilduta gaude; natural zein artifizialean, lehen zein ozenetan, egunez zein gauez. Soinuak irudietatik at garamatza, mundua hurbilagokoa eginez; horrela, ingurumenaz baliozko informazioa ematen digu eta inguruan ibiltzea errazten digu. Soinuak, paisaia guztietako ezaugarri iraunkor eta dinamik horiek (Pijanowski et al., 2011), toki bateko lurreko erreferentziak bezain espezifikoak izan daitezke (Schafer, 1994). Dena dela, ikusizkoan hain zentratua den gure kulturaren, soinua oraindik aztertu gabeko informazio-geruza bat da,

leku baten identitateaz asko argi liezagukeena eta horrekin batera arte eta hiriko diseinu-praktiketan inspirazioa ekar lezakeena. Hiriko diseinatzaileentzat soinuaren ahalezko rola ulertzeko, proiektu artistiko zenbaitetan aritu naiz, zeinek naturak eta kulturak ehundutako hiriaren eremua aztertzen duten, eta eremu horren ezagutzatik berari dagozkion diseinu-interbentzioak atondu ditut. Txosten honek proiektu horien artean bigarrena hartzen du hausnarketa-gai, *Rewilding the Gardiner Expressway* ingelesez deritzana. Autobia horren inguru hurbila birbasatzea bilatzen duen multimedia-lana, 2016ko maiatzean aurkeztua, Evergreen Brick Works-en artean, Toronton, Scotiabank Contact Photography 2016 Festivalizeneko jaialdiaren barruan.

## Gardiner Expressway errepidea eta Leslie Street penintsula

*Rewilding the Gardiner Expressway* alegiazko proiektua da eta Gardiner autobia horren pean utzitako gunek hartzen ditu aztergai, gune horiek hobetzeko basatze baten bitartez, behin izan zuten kutsu basatia berriro eskuratzeko asmoz. Gardiner hori Ontario lakuaren paralelo doa eta Toronto hegoaldeko trafikoa hartzen du. Errepidea 1950 eta 1960 hamarkadetan egin zen eta kosta aldeko hiri-ehuna zatitzen du, hiria eta lakua banatuz, bien arteko lotura harmonikoa apurtuz. Lakuaren kosta originala Front Street-en pare doa eta kale horretan lana eta aisia elkarren ondoan egiten ziren (Chan, 2013). XX. mendean, industrietan eta dentsifikatzearekin batera, Torontok bere mugak hegoalderantz zabaltu zituen, lakuraino heldu eta prozesu horretan hiriak lakuarekiko lotura zuzena galdu zuen. Egin zenean, Gardiner autobidea zoru industrialetik igarotzen





1. irudia - Gardiner Expressway, Toronto.
2. irudia - Leslie Street Spit, Toronto.
3. irudia - Leslie Street Spit, Toronto.
4. irudia - Leslie Street Spit, Toronto.
5. irudia - Lower Jarvis Street, Toronto, Rewilding the Gardiner Expressway erakusketa.

Iturria - Egilea.



zen batez ere. XX. mendeko bigarren zatian eta hiriaren dentsifikatzearekin batera, zoruaren balioa goraka joan da eta industriaguneak periferian kokatu dira, lehen okupatzen zituzten guneak libre utziz, berriztatze urbanoaren zain geratuz.

Hiria gaur fisikoki lakuarekin kontaktuan izan arren, Torontoko biztanleen sentsazioa bestelakoa da. Alegiazko proiektu honek lakua hiriratu nahi du. Gardiner-pean geratutakoa uraren egintzaren bidez birbasatu nahi da, lakuan gertatutako esperientzia hirian gauzatuz, estetika basatia urbanoa eginez. Behean azaltzen dudana Leslie Street penintsularen birnaturalizazioa aurretiazkotzat hartzen dut birbasatze honetarako.

Leslie Street penintsula azken 50 urte luzeetan hondakinez egindako erdiharte artifiziala da. Torontoko East End-eko bizigunean aurkitzen den Leslie Street-en parean eta lakuan sartzen den espigoi zabal baten antzera, penintsula artifizial hori 5 km luzatzen da laku barrura. Hasieran, 1950eko hamarkadaren bukaeran hain zuzen, Torontoko Portu Komisioak hirirako kanpoko portu bat egin nahi zuen eta horretarako kai zabal bat prestatzen hasi ziren, gero penintsula bihurtuko zena. Ontzi-industria beharrezkoa zela eta, kanpoko portua egitea ez zen beharrezkoa izan, baina hasitako penintsula hori hiria handitzeko dinamikarekin sortzen ziren hondakin solidoak ezartzeko aproposa gertatu zitzaizkien Torontoko kudeatzaileei. 1970eko hamarkadarako jada, penintsula basatua zen, berezko bilakaera ekologikoari esker eta erdihartea jendeari ireki zitzaion pixkanaka. Lekuaren biodibertsitatearekin batera, publikoaren interesa handituz joan zen eta Penintsularen Adiskideak (Friends of the Spit) elkarteak eratu zen, penintsula publikoari irekita mantentzeko. Egun, asteburuan dago irekita. Asteazken zehar erdihartea betetzen jarraitzen da. Parkeak ingurumen-gune sentikor bat (Environmental Sensitive Area) eta hegaztien kontserbaziorako gune garrantzitsu bat (Important Bird Area) dauzka eta habitat askoren eremua dugu bera, hala nola makal, lertxun, sahatz eta besteren oihanak, zelaia edo kosta inguruko padurak. Hondakinak ezartzeko guneak, Baliabide Naturalen Ministerioarenak direnak eta Torontoko Parke Autoritateak daramatzanak, oraindik lanetan dabilta. Hiriaren gune preziazutakoan izanik, Torontoko East End-en delakoan, penintsulak zabaltze urbanoari aurre egin dio eta Toronto eta Lurralde Kontserbaziorako Autoritateak kudeatzen du, hirian natura gordez, jende eta basabizitzaren onurako.

### **Proiektuaren metodoa**

Proiektu honen garapenak Gardiner Expressway bidepean eta Leslie Street penintsulan zehar egindako zenbait soinu-ibilaldi hartzen ditu, leku horietako ezaugarri fisiko eta akustikoak bilatu eta hartzearen. Soinu-ibilaldiak, soinu ekologista kanadiarren artean aspaldi finkatutako tradizioa izanda, Shafer-ek dioenez, gune konkretu bateko soinutzaren miaketa-partitura bat bidelagun dugularik (Shafer, 1994). Partiturentzat, hainbat habitat eta gune zituzten mapa-ibilbideak erabili nituen, penintsula eta autobian zehar egindako ibilaldietan


Leslie Street penintsulari egindako bisitak hiru hilabeteko epealdian izan ziren, urtaroen eragina nabaritzearen.

Asteburuetara nire bisitak mugatu nituenez, eraikitzen zeuden sektoreak mutu ziren niretzat. Ikustean, hondakinez betetzen ari den paisaia gizakiak egindakotzat jo dezakegu, adreilu eta porlanezko metak direlarik. Alderantziz, penintsulako sektore zaharrak, hiritik hurbilenak, beste izaera bat erakusten digu.

Penintsula lehenbiziko aldiz bisitatu nuenean, 2015eko uztaileko udako egun bero batean, haren naturatasunez harrituta geratu nintzen. Zona zaharrenean dagoen sarrera nagusia igaroz, oinetakoentzako bidezidorreren bat harturik, ibili-ibilian, gizakiak egindako zela ahantz zenezake. Hondakin-basea, landare-geruza lodi batek estalia, laku ondoan biribildua zen, aintzirako urak zizelduta. Hor, toki horretan naturan eta haren soinuetan murgilduta egon nintzen oso-osorik; brisa gozoa hostoen pir-pirean, kilkerren kirkirra, Ameriketako txantxangorrien txorrotxioa edo uhinen xaplakadak kostaren ertzean. Baina soinuak berak non nembilen gogoratu zidan, hiri-eremuaren barnean. Inguru gertuan dagoen Billy Bishop aireportuan abioien irteeren eta sarreraren run-run luzeek edo ibiltari askoren ahots eta urratsek zapuzten zuten nire gozamen eta bide batez inguru naturalean egiten ari nintzen erregistroa. Geroagoko bisitetan, berriz, soinu «artifizial» horiek ez zitzaizkidan hain nabariak gertatu, beharbada soinu latz horiek leuntzen ikasia nintzelako, bestelako soinuak entzungarri egiteko (Westerkamp, 2015). Nire bigarren bisita penintsulara abuztuaren amaiera aldera izan zen, beste egun bero bat zen, baina askoz aktibitate gutxiagoko eguna gertatu zen. Egun horretan entzun nuen kilkerren kirkir luzeak niregan dirau. Hirugarren bisita, irailaren azken aldean, oraindik egun bero-beroa zen. Aintziraren ura bizi-bizia zen eta atzealdetik entzuten nuen uhinen soinua lagun izan nuen bidean zehar. Azken bisitan, urriko egun hotz eta euritsuaren, erdihartea bare-bare zegoen eta, ura, aldiz, guztiz zakar.

Gardiner-eko lekuetara egin nituen bisitak lanegunetan izan ziren, goizez erdiko orduetan eta arratsaldean lehenengoetan, trafiko gogorreko orduak ekiditeko. Trafikoaren zurrumurrua eta estrukturan erreberberazioa nirekin izan ziren bisita guztietan. Soinu horien ozentasuna estrukturan zehar tokiz toki aldatuz zihoan, gutxituz estruktura altuago doanean edo aldameneko guneak irekiago zabaltzen direnean. Bisitaz bisita, arkuen arkitektura ederresten ikasi nuen eta estruktoretatik iragazten zen argiak amaigabetasunaren ilusioa ematen zidan. Bisitetan ere utzitako beheko espazio horiek berengan zeuzkaten atsekabeak eta goibelak jotzen ninduten.

Behin aztertutako materiala bilduta izan nuenean, birbasatze honetarako formatu batzuk kontuan izan nituen. Haien artean, Gardiner autobiapean tokian tokiko instalazioak jartzea eta natur ibilaldi interaktiboak egitea zeuden, baina formatu hori albora utzi nuen goialdetik zetorren soinu gogorak eta autobiapean ibiltzeko zailtasun-baldintzek alboratzearen alde bultzatzen zutelako. Azken formatua hau da: multimediazko erakusketa bat, hamar irudi eta kanta eta bideo bat. Erakusketa zehar ikusleak bidaiatzen du Gardiner Expressway autobideari jarraituz, Dan Leckie Way-tik Cherry Street-era eta, aldi berean, ibilaldi bat egiten du Leslie Street penintsulatik irudikatutako naturan zehar. Ikusleak mendebaldera bidaiatzen duenean, denboran ere udako aroa zeharkatzen du berak.



6. irudia ~ Gardiner Expressway irudi kokapena, Toronto.  
Iturria ~ Egilea.

Irudiak eta soinuak era batera erabiltzen dira leku baten esperientzia aurkezteko. Irudiak autobia eta penintsularen argazkien konposizioak dira. Azken irudiak sortzeko autobideko eta erdiharteko guneak parekatu dira, haien ezaugarriak eta atmosfera kontuan hartuta. Esate baterako, Dan Leckie Way-n jartzen banaiz amaitzen ez diren autobia arkuak artetik iragazten den argiari begira, burura datorkit penintsulan zaudenean eta kostan kokatuta lakura begiratzen duzun mementoa. Edo Lower Jarvis Street-tik mendebalderantz bista zuzenduz, arkuak egiten duten markoa eta horren antz bizia ematen dizula penintsulan ekialdera doan oinetakoentzako bidezidorrean jarrita landareak biltzen duen eremuari begiratzen diozunean.

Irudiek Gardiner autobia arkitektura eta Leslie Street-en natura aurkezten dute. Soinuak, bere aldetik, irudiei denborazko dinamika eta lekunezko neurria ematen die (Voegelin, 2010). Soinuaren bidez ikuslea irudian murgil daiteke, irudiaren barruan sartu eta horren azalpen propioa egin. Bideoak irudiak eta soinuak batzen ditu guneen itxura-aldaketa aurkezteko.

### Amaiera

Eremu publikoan ikusizkoa diseinuan jaun eta jabe izanik, proiektu honek irudia soinu-ibilaldien balioa plazara ateratzen du, paisaia aztertzean diseinatzaile urbanoek kontuan izan dezaten aukeran jarriz. Soinu-ibilaldiek ahalbidetzen gaituzte, ez bakarrik entzuten ikasteko, baita gure diseinuetan soinuaren informazio-geruza biltzen hasteko eta paisaiak soinuaren bildumatzat aztertzeke ere. Soinua berebiziko informazio-geruza da paisaia aztertzen denean, batez ere hiriaren mugetan, natura eta kultura nahasten eta ehuntzen direnean. Soinuak leku baten eremuaren mugak gaituzte, leku hori bere inguruan ainguratzen. Soinuak ikusten ez dena ere ezagutzera ematen du, gure irudimena zorrotz eta toki batekiko gure atxikimendua indartuz. Horrela, egunero eta aro guztietako aldakuntzak entzunez, toki baten aberastasuna eta bakartasuna agerian gera daitezke.

///

### Bibliografia

- Chan, A. (2013): «Sympathetic Landscapes: An Aesthetic for the Leslie Street Spit», University of Waterloo.
- Hull, J. (2013): *Touching the Rock: An Experience of Blindness*, SPCK, New York.
- Pijanowski, B.; Villanueva-Rivera, L.; Dumyahn, S. et al. (2011): «Soundscape Ecology: The Science of Sound in the Landscape», *BioScience*, 61 (3), 203-16, doi:10.1525/bio.2011.61.3.6.
- Schafer, R.M. (1994): *The Soundscape: Our Sonic Environment and the Tuning of the World*, Destiny Books, Rochester, Vermont.
- Voegelin, S. (2010): *Listening to Noise and Silence: Towards a Philosophy of Sound Art*, Continuum.
- Westerkamp, H. (2015): «The Disruptive Nature of Listening, Keynote Address International Symposium on Electronic Art», Vancouver, B.C. <[http://www.sfu.ca/~westerka/writings\\_page/articles\\_pages/disruptive.html](http://www.sfu.ca/~westerka/writings_page/articles_pages/disruptive.html)>.

Irudiak eta soinuak: [rewildingthegardiner.com/01-02](http://rewildingthegardiner.com/01-02)

Bideoa: [rewildingthegardiner.com](http://rewildingthegardiner.com)